

# Marrazten desikasi / Marrazkiaren mugetan



 Bigarren Hezkuntza | 6 - 8 saio

Marraskia

Komikia

Gorputza

Batzuetan, marraztea ekintza mekaniko jakin batzuen errepikapen soila bihurtzen da, ikasitako jarraibide eta eredu batzuei erantzunez, eta, ondorioz, marrazteko modu egoki eta desegokiak ulertzen dira. Ideia horrekin hausteko, marrazten desikasi behar dugu, aukera berriak aztertzen, marrazten gozaten, marraskia ekintza gisa ulertzen, gorputz-keinu gisa edo munduari buruz dugun ikuspegia partekatzeko leku gisa. Horretarako, proposamen berriekin esperimendatu behar dugu.

## Helburuak

- Andrea Ganuzaren obra ezagutu eta komikiaren hizkuntza eta sormen kolektiboko estrategietara hurbiltzea.
- Marrazketa ikasteko prozesua eta honen aukeren inguruko klixek haustea.
- Esperimentaziotik, gozamenetik eta jolas partekatutik ikastea.

## Aipamenak

**Andrea Ganuza:** <https://www.behance.net/andreaganuza>

**Cómic en euskera:** <http://www.komikipedia.eus/index.php?title=Azala>  
<https://aupakomik.blogspot.com/>

**Técnicas surrealistas para el dibujo:** [https://es.wikipedia.org/wiki/T%C3%A9cnicas\\_surrealistas](https://es.wikipedia.org/wiki/T%C3%A9cnicas_surrealistas)

**Segni mossi. Proyecto de dibujo y danza para niños/as y adultos:** [www.segnimossi.net](http://www.segnimossi.net)

## Proposamenaren garapena

### Aurkezpena

**1.** Papera eta boligrafoa eskuan, ikasle bakoitzak etxe bat marraztuko dugu minutu batean. Emaitzak alderatu eta aztertuko ditugu. *Zergatik dira hain antzekoak marrazkiak? Ezagutzen al dugu gure inguruan ezaugarri horiek dituen etxerik? Zergatik marrazten dugu antzera? Beste aukera batzuk ezagutzea gustatuko litzaiguke?*

**2.** Hurrengo saiorako, bakoitzak gustuko duen marrazki motarekin lotutako materiala ekarriko dugu (komikia, tatuajea, kartelak, beste material batzuk), eta material horietatik sortu diren gauza interesgarrien zerrenda egingo dugu. *Marrazten desikasten ikasten. Dekalogoia deituko diogu.*

### Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

**1.** Hainbat saiotan zehar, marrazkiarekin esperimendatzeko ariketa erraz batzuek egingo ditugu:

- Ikasle bakoitzari objektu bat banatu (ezagutzeko errazak ez izateko moduan: dekorazio-objektuak, material-zatiak...). Begiak estalita dituen ikasle bakoitzak minutu batez ukituko dugu objektua. Ondoren, buruan sortu zaigun irudia marraztuko dugu (begietan bendarik gabe).
- Bikoteka, bata bestearen aurrean. Batek, begiak estalita, eskua bestearen aurpegian jartzen du, eta haztatzean sentitzen duen marra bakoitza marrazten du, papera ikusi gabe eta oso poliki.
- Ikasgelako horman zehar papelografoa jarriko dugu. Paperaren aurrean eta errotuladore bat eskuan, ikasle-kopuru egokia jarriko dugu, bakoitzak askatasunez marrazteko eta mugitzeko behar adina leku izan dezan. Eserita dauden ikasleetako batek

ozenki irakurriko du aurrez hautatutako testu bat (literatura, zientzia, publizitatea). Bitartean, paperaren aurrean gaudenok entzuten dugunaren arabera marraztuko dugu (modu abstraktuan, edo ez). Testuaren irakurketa luzatu egingo da, marrazten duenaren nekea bilatuz, eta irakurtzen duenak kontakizunaren abiadura aldatu ahal izango du, nahi duen moduan.

**2.** Esperimentazioaren ondoren, interesgarriak iruditu zaizkigun gauzak dekalogoan sartuko ditugu, eta eginiko ariketen argazkiak aterako ditugu.

**3.** Fanzinea sortu: Lau edo bosnakako taldeetan, fanzine bat diseinatuko dugu (formatu digitalean edo paperean, collage gisa), *Marrazten desikasten ikasten. Dekalogoia* eta sortutako materialen argazkiak jasotzeko.

### Ondorioak eta lerro irekiak

- Fanzinea fotokopiatu, inprimatu edo eskolako blogean zintzilikatuko dugu, beste ikasleekin lana partekatzeko eta bertako edozein ariketa egitera gonbidatuz.
- *Marrazten desikasten ikasten. Dekalogoia* kontuan hartuta, berotze-ariketa zerrenda bat asmatuko dugu: marraztu, idatzi edo antzeko jardueraren bat egin behar dugun edozein saioaren hasieran egiteko.
- Andrea Ganuzarenak bezalako obrek, ikasgelan liburutegi txiki bat sortuko dugu. Adibide/erreferente berriak sartzen joanez, marrazteko modu berriak pizten laguntzeko.